

ETXEA, GURE ATERPEA

XXI zinema erakusketa
2026eko azaroak 16-20 golem baiona-n

mundua eta giza eskubideak

SUBVENCIONAN / DIRUZ LAGUNDU DUTE
IPES · golem · Fundación Felipe Rinaldi · Mugarik Gabe Nafarroa · Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua · Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala

GOIZEKO HEZIKETA SAIOAK

Erdi Mailako Ikasketak

Saioetan, **filmak emango dira**, gaiari sarrera emateko eta eztabaida sortzeko ikasleekin, saiorako gonbidatutako pertsonen azalpenaren bidez.

Saio guztiak 9:15etatik 11:45era izango dira.

INFO +: fundacion@fundacionipes.org

AZAROAREN 17AN, ASTEARTEA

BLACK WATER

Natxo Leuza (Espainia, 82'. 2025)

2050ean, Bangladeshek gutxi gorabehera 220 milioi biztanle edukiko ditu, eta bere lurraldearen zati handi bat urpean egongo da etengabe. Baliteke egoera horrek herrialdearen hegoaldeko itsasertzeko 10 eta 30 milioi biztanle artean nahitaez lekualdatu behar izatea ekartzea, hartara, bangladeshtar asko "iheslari klimatiko" moduan ihes egitera behartuta egonda. Aurreikuspenen arabera, iheslari horien giza taldeak 250 milioi pertsona izango ditu mundu osoan mendearen erdi aldera. Planeta-mailan, gizakion historiako migrazio masibo handienaz hitz egiten ari gara.
Noiz arte jasango du Dhakak hainbeste pertsona iristea bertara? Nora joango dira pertsona horiek guztiak hiriek kolapsatzen dutenean? Nork hartuko ditu?
Denbora-bonba handi baten gainean eserita gaude.

SOLASALDIAN PARTE HARTUKO DU

SUSTRAI ERAKUNTZA FUNDAZIOA, ingurumena babestearen alde borrokatzen diren Nafarroako gizarte-mugimenduetatik sortutako erakundea. Bere helburua da gizarte- eta auzo-mugimenduei laguntzea erantzun juridikoa eta teknikoa ematen, Nafarroako lurraldea mehatxatzen duten proiektu defendaezin eta sostengaezinen aurrean. Dinamizatzailea **MARTÍN ZELAIA GARCÍA** izango da, ingeniari agronomoa eta Sustrai Erakuntza fundazioko kolaboratzailea.



AZAROAREN 18AN, ASTEAZKENA

VIAJE AL PAÍS DE LOS BLANCOS

Dani Sancho (Espainia, 110'. 2026)

Ousman Umarren benetako historian oinarrituta dago. Ghanako gazte horrek "zurien herrialdearen" ideiak, bere jakin-mina elikatzen duen toki urrun batek, erakarrita utziko du bere herrixka. Oztopoz betetako ibilaldi baten ondoren, Bartzelonara iritsiko da eta konturatuko da han bizitza ez dela berak irudikatzen zuen modukoa. **Montse** ezagutzen duenean, ordea, berak familian hartuko du eta, maitasuna eta babesa eskaintzeaz gain, etorkizun baterako aukera emango dio. **Ousman**ek, aukera hori aprobetxatzeaz gain, askoz ere handiagoa den zerbait bihurtuko du.

SOLASALDIAN PARTE HARTUKO DU

SOS ARRAZAKERIA NAFARROA, arrazakeriaren kontrako elkartea. Bere helburu nagusiak dira eskubide-berdintasuna defendatzea eta jatorriagatiko, kulturagatiko edo talde etniko batekoa izateagatiko bereizkeria-modu oro borrokatzea. Horretarako, gizarte-eraldaketa sakon baten eta eskubide-berdintasunean eta, elementu egituratzaile moduan, dibertsitatea aitortzean oinarritutako egitura-aldaketa baten alde lan egiten du. Dinamizatzaileak **AGUSTÍN CUEVAS** eta **BRENDA ESQUIVEL** izango dira, eragin politikoko teknikariak eta SOS Arrazakeria Nafarroako militanteak.



AZAROAREN 19AN, OSTEGUNA

VIDAS IRRENOVABLES

Francisco José Vaquero Robustillo (Espainia, 50'. 2024)

Erregai fosiletan oinarritutako energia-iturriak energia-iturri berriztagarriekin ordezkatzea ekosistemak, ekonomiak eta landa-arloko gizarteak suntsitzen ari da Espainian. Plangintzarik eza eta administrazio publikoen kudeaketa negargarria landa-arloaren iraupena arrisku larrian jartzen ari da. Ingurumena salbatzera eta herrietako bizimodua berpiztera zetorren zerbait, paradoxikoki, guztiz aurkako bihurtzen ari da. Egoera kezkagarri honen aurrean, pertsona askok kontra egiten diote beren lurraldeak hiltzen ikusteari eta beren biziak ematen ari dira egoera hau geldiarazi ahal izateko.

SOLASALDIAN PARTE HARTUKO DU

SUSTRAI ERAKUNTZA FUNDAZIOA, ingurumena babestearen alde borrokatzen diren Nafarroako gizarte-mugimenduetatik sortutako erakundea. Bere helburua da gizarte- eta auzo-mugimenduei laguntzea erantzun juridikoa eta teknikoa ematen, Nafarroako lurraldea mehatxatzen duten proiektu defendaezin eta sostengaezinen aurrean. Dinamizatzailea **MARTÍN ZELAIA GARCÍA** izango da, ingeniari agronomoa eta Sustrai Erakuntza fundazioko kolaboratzailea.





AZAROAREN 16AN, ASTELEHENA



19:30ean / 6,00€

ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA ETA BIZIMODU KOMUNITARIOA

AMORA

Ana Petta (Brasil, 77'. 2025)

GONBIDATUA

MAUGE CAÑADA ZORRILLA, 65 urte, seme baten eta alaba baten ama, bi pertsona zoragarriren amona. Berarekin bizi diren pertsona asko barne hartzen dituen sare askotariko eta handi batetik abiatzen da.

1980ko hamarkadatik, komunitatean bizi izan da, eta 2014az geroztik eta egun arte, Arterra Bizimodu herrixka ekologikoaren sortzailekidea da, Nafarroako "elkarlaneko etxebizitzako" lehen proiektuarena. Egun, bertan bizi da.

Psikologoa, erraztailea, hezitzailea eta baratzezaina.

SINOPSIA

Pedrok 4 urte ditu, eta familiarekin bizi den bizitegi-gune txikia, zuhaitzez, bizilagunez eta jolasez betea, Sao Paulo hiriaren bihotzean dago eta laster eraitsi egingo dute beste eraikin bat eraikitzeko. Pedroren begiradaren eta irudimenaren bidez, dokumentalak aurrez aurre jarriko gaitu helduen munduarekin, higiezinen espekulazioak eta memoriaren suntsiketak markatuta. Haurren ikuspuntu batetik, filmak gogoeta egiten du haurtzaroaz, naturaz eta hiriaren eraldaketez.

ANA PETTA. Brasildar errealizadorea. Zuzendari gisa egindako lanen artean, QUANDO FALTA O AR (2022), É Tudo Verdade jaialdiko film irabazlea, eta OSVALDÃO (2014) daude, azken hori Sao Pauloko Mostra Internacional de Cinema jaialdiaren barnean egon zena. Halaber, LOS OJOS DE BACURI (2010) ekoitzi eta bertan kolaboratu zuen, Gramado 2013n irabazlea. Unidade Básica saileko aktorea eta sortzailea. Zenbait filmetan parte hartu du, adibidez, TRABALHAR CANSA (2011) eta MUNDO INVISÍVEL (2012) lanetan, eta Do Latão eta São Jorge de Variedades antzerki-konpainiekin.

SARIAK

Festival Internacional de Cine Ambiental (FINCA) jaialdian publikoaren bozkaren saria. Film luze onenaren saria eta Epaimahai Nagusiaren ohorezko aipamena, TENEMOS QUE VER Uruguaiko Zinemaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Jaialdian.

17:15ean / DOHAINIK

FILM LABUR INDIGENAK: LURRA ETA LURRALDEA



HERIDAS DE ASFALTO

Uber Gualinga, 14'. 2025 (Ekuador)

Uber Gualinga Sarayakuko gazte kichwaren begiradaren bidez, saiakera intimo honek Ekuadorko Amazonia lurraldearen eraldaketa deskribatzen du. Errepide batek Bobonaza ibaia zeharkatzen duen bitartean, haren irudiek eta gogoetek aspaldiko memoriaren eta garapen-promesen arteko haustura utziko dute agerian.



IXQUIC

Elvis Caj, 25'. 2025 (Guatemala)

Ixquic nerabe indigena amaren istorioak entzuten haziko da, maia arbasoei eta antzina gauak argiztatzen zituzten ipurtargiei buruzko istorioak. Enpresa hidroelektriko baten aurrean ama ibaia defendatzeagatik borrokatzen den bitartean, **Ixquic** aurrerapenaren promesez fidatuko da.



CHARIP

Kolektiboa, 20'. 2025 (Peru)

Urrearen legez kanpoko meatzaritza Peruko Amazonia lurraldearen iparraldean hedatzen den bitartean, wampis nazioa aspaldiko bere lurraldea defendatzeagatik borrokatuko da. Film labur honetan **Charip taldea**ri lagun egingo zaio, wampis guardia indigenari, ingurumen-suntsiketaren aurkako borrokan, ausardiaz, jakinduriaz eta autonomiaz.



SUEÑO DE UNA NOCHE DE SELVA

Diego Sarmiento Pagán, 5'. 2024 (Peru)

Peruko Amazonia lurraldean, neska gazte indigena batek eta amonak amets misteriotsu bat ekarriko dute gogora; oihanaren iragana, oraina eta etorkizun posiblea ezagutzera ematen duen ametsa. Belaunaldien arteko loturaren bidez, filmak ezagutza indigena, espiritualtasuna eta itxaropena esploratuko ditu klima-krisiaren aurrean.

GONBIDATUA. JANA MONTLLOR BLANES (Bartzelona, 1979) zinemagilea, ekoizlea eta kultura-kudeatzailea da, eragin komunitarioko proiektuetan espezializatua. Egun, IndiFest koordinatzen du, Bartzelonako Zinema Indigenaren Jaialdia, komunikazio propiorako, autorrepresentaziorako eta burujabetza narratiborako eskubidea sendotzeko apustua.



AZAROAREN 17AN, ASTEARTEA



19:30ean / 6,00€

SEXU-ABUSUA

HERMANAS

Ione Hernández (Espainia, 102'. 2026)

GONBIDATUA

IONE HERNÁNDEZ, filmaren zuzendaria.

SINOPSIA

Chelo eta **Marta** ahizpak dira, eta beren bizitza betirako aldatzeko zorian dago. Uda horretan, ustekabeko gertakari batek familiaren oinarriak astindu eta iraganeko mamuak ekarriko ditu orainera. Ezin hautsizko lotura zirudiena kolokan geldituko dira, dilema mingarri bati aurre egitera behartuz: noraino iristeko prest dauden gehien maite dituztenak babesteko, nahiz eta horrek esan nahi izan beren familiaren zati batekin harremanak eten behar izatea.

IONE HERNANDEZ. Kazetaritzako lizentzia eskuratu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, Komunikazioa ikasi zuen Michel de Montaigne unibertsitatean (Bordele), zuzendaritzako masterra egin zuen Chapman Universityn eta gidoigintzako ikastaroa egin zuen San Antonio de Los Bañosko (Kuba) Zinema eta Telebistako Nazioarteko Eskolan. Nazioartean ibilbidea egin duten zenbait film labur idatzi eta zuzendu ditu, adibidez, AIZEA, CIUDAD DEL VIENTO (2001), JUEGO (2007) eta EL PALACIO DE LA LUNA (2008), eta bai 1% ESQUIZOFRENIA (2007) film luze dokumentala ere. Madrilgo EFTI eskolako (Centro Internacional de Fotografía y Cine) zuzendaritza zinematografikoko masterraren koordinatzailea eta tutorea izan da.

17:15ean / DOHAINIK

FILM LABUR INDIGENAK:
FEMENINOA PLURALEAN ETA IDENTITATEAK



PAJUYUK

Ruby Chasi, 19'. 2025 (Ekuador)

Ekuadorko Amazonia lurraldeko Alto Napon, napuruna emaginek Kicnana ospatzen dute energia berritzeko, erditze batean lagundu eta gero. **Mama Antonia**k, bere kontaketen bidez, transmitituko du emagin jarduna belaunaldiz belaunaldi erakusten dela. Ura edatean, emaginek beren osasuna leheneratu eta beren Pajuyuka sendotuko dute, antzinako jakituria.



KUSI SONRÍE

Sisa Quispe, 15'. 2025 (Peru)

Abesteko gaitasuna galdu duen nerabe kitxua bat Andeetako bere komunitatera itzuliko da, eta bertan ahizpatasunak, musikak eta hazten ikusi zuen lurrak lagun egingo diote dolutik sendatzera igarotzean.



AKABABURU: EXPRESIÓN DE ASOMBRO

Irati Dojura Landa Yagarí, 14'. 2025 (Kolonbia)

Kari neskato indigena embera da, barre egiteko beldur dena. Egun batean, **Kera** ezagutuko du, gazte mestizo bat, **Kiraparamia**ren mitoa kontatzea erabakiko duena. Kiraparamia emakume bat zen, zaharren arabera, jainkoek zigortu zutena, senarrari barre egiteagatik. **Kera**k, ordea, mitoa berrinterpretatuko du eta, istorioak inspiratuta, **Kari**k erabakiko du, barrearekin, zapaltzen duten neska-mutikoei aurka egitea.



WOMEN OF WAMPUN

Alex Miranda, Dr. Kelsey Leonard, 12'. 2025 (Kanada)

Emakume indigenen talde bat elkartu egingo da wampumek gobernantzan, egia ezagutaraztean eta belaunaldien arteko arduran duen eginkizuna berriro idazteko, ahaide moluskuekin eta itsasertzeko lurrekin elkarrekiko harremanetan sustraituta. Burujabetzaren, itxaropenaren eta emakume indigenen botere betierekoaren adierazpidea.

GONBIDATUA. JANA MONTLLOR BLANES (Bartzelona, 1979) zinemagilea, ekoizlea eta kultura-kudeatzailea da, eragin komunitarioko proiektuetan espezializatua. Egun, IndiFest koordinatzen du, Bartzelonako Zinema Indigenaren Jaialdia, komunikazio propiorako, autorrepresentaziorako eta burujabetza narratiborako eskubidea sendotzeko apustua.



AZAROAREN 18AN, ASTEAZKENA



19:30ean / 6,00€

ASKATASUN ARTISTIKOA ETA ZENTSURA

CARTAS DE ESTADO

YELLOW LETTERS

Ilker Çatak (Alemania-Frantzia-Turkia, 128'. 2026)

SINOPSIA

Deryak eta **Azi**zek Ankarako artista bikote ospetsu bat osatzen dute. Bizitza betea dute, 13 urteko **Ezgi** alabarekin, beren lan berriaren estreinaldian gertatuko den gertakari batek dena aldatu arte. Gauetik goizera, Turkiako Estatuaren jopuntu izango dira, eta lanak eta etxea galduko dituzte

ILKER ÇATAK (Berlin, 1984). İlker Çatak turkiar-alemaniar zinema-zuzendaria eta gidoilaria da. Zinema garaikidean egin duen lanarengatik ezaguna da, bereziki, gai sozial eta humano sakonetan duen ikuspuntuarengatik. Bere filmografian, besteak beste, film luze hauek daude: ONCE UPON A TIME… INDIANERLAND (2017), I WAS, I AM, I WILL BE (2019) eta LA SALA DE PROFESORES (2023). Azken horrek hainbat sari eskuratu zituen, barne hartuta Oscar sarietarako izendapena nazioarteko film onena izateagatik, eta zinemagile moldakor eta berritzaile gisa ezarri zuen.

SARIAK

Urrezko Hartza saria film onenari, Berlingo Nazioarteko Zinemaldian (2026).
2026ko Alemaniako zinemako sariak. Bigarren film onena eta soinu-banda onena (Marvin Miller).

GONBIDATUA

IDIL SAFIYE SOYSEÇKIN CEYLAN, doktorea Soziologian, Ekialde Ertaineko Unibertsitate Teknikoan, eta ikertzaile feminista, Ankaran jaioa. Ikerketa sozialaren, genero-berdintasunaren eta feminismoen, aktibismo politikoaren, migrazioen eta multikulturalismoaren irakaskuntzaren, eta giza eskubideen defentsaren artean garatu du ibilbidea, eta horrez gain, adierazpide politikoko eta ekintza kolektiboko moduan, film laburrak ekoizteari eta bideo-aktibismoari lotu zaio. Egun, SEI Elkartean lan egiten du, Nafarroan, migrazio-prozesuetan eta familiak berriz elkartzekoetan familiei, haurrei eta nerabeei lagun egiten dien erakundean.





AZAROAREN 19AN, OSTEGUNA

18:00ean / DOHAINIK

PERTSONA-SALEROSKETA, INDARKERIA ETA ESPLOTAZIOA

EL CONGELADOR

Raúl de la Fuente eta Amaia Remírez (Espainia, 20'. 2026)

GONBIDATUA

MIKEL BERRAONDO, Atolónicako bazkidea. Nafarroako Gobernuaren aholkularia, giza eskubideen eta bizikidetzaren gaian. AECID agentziaren aholkularia, enpresen eta giza eskubideen gaian. 25 urtetik gora daramatza herri indigenekin lan egiten eta bidezko eginbideko prozesuak ezartzen giza eskubideetan. Egun, wayuu erakundeei lagun egiten die giza eskubideak gauzatzeko prozesuetan.

SINOPSIA

Peruko hego-ekialdean, Amazonia lurraldean, Madre de Diosen, meatzaritza-ustiategiko lur suntsituetan, atxikita duen mafiatik ihes egitea lortuko du neskato batek. Alde egin eta gero, justizia bila hasiko da, eta, hala, bere kasua nazio osoarekin partekatuko du, politikarien, fiskalen, epaileen eta polizien arreta eskatuz.

RAÚL DE LA FUENTE eta AMAIA REMÍREZ. Zuzendariak, gidoilariak eta ekoizleak, **Amaia**k eta **Raúl**ek 20 urtetik gora daramatzate elkarrekin lan egiten, eta 2009an **Kanaki Films** sortu zuten. 150 sari baino gehiago jaso dituzte nazioko eta nazioarteko jaialdietan hainbat proiekturekin, adibidez, MINERITA (Oscar Shortlisted, 2014ko Goya) eta EL INFIERNO (2020ko Goyarako izendatua, Hollywoodeko SIMA saria, argazki eta dokumental onenari) lanekin. ANOTHER DAY OF LIFE lanak sail ofiziala estreinatu zuen Cannesen, eta Europako Film Onenaren Saria, Goya eta animazio onenaren Platino saria, eta Donostiako Zinemaldiko Publikoaren Saria eskuratu zituen. Gai sozialak jorratzen dituzten istorioen bila –genero-indarkeria, haur soldaduak, espetxeratutako adingabeak…–, hainbat tokitan filmatu dute, esate baterako, Angolan, Sierra Leonan, Bolivian, Perun, Kanadan, Sarajevon, Mexikon, etab.

SARIAK

Orcasitasko Certamen Nacional de Cortometrajes lehiaketan dokumental onenari epaimahaiak emandako saria (2026), Talavera de la Reinako Festival de Cortos lehiaketan Pavez saria film dokumental onenari (2026), Film Festival for Womens Rights – FIWON lehiaketan (Hego Korea) epaimahaiak emandako sari berezia, besteak beste.



IndiFest
alterNativa
Intercanvi amb Pobles Indígenes

AZAROAREN 19AN, OSTEGUNA



19:30ean / 6,00€

INDIGENEN ERRESISTENTZIA

EL VIAJE DEL KOKORRDIT

Elio B Cunampio, Guido Bilbao (Panama, 72'. 2026)

SINOPSIA

Lider indigena batek eta haren iloba menderakaitzak bidaia bat hasiko dute Darien eskualdean *Kokorrdit*en bila, deforestazioaren ondorioz desagertutako hegazti sakratua. Neska-mutikoek ez badituzte hegaztiak ikusten, ezin dituzte ikasi haien mugimenduak imitatzen dituzten dantza tradizionalak. Kulturak irautea arriskuan dago. **Ayned**ek eta **Areo**k ezin konta ahala mehatxu aurkituko dituzte bidean. **Ayned**ek aurka egingo dio bere herriaren sufrikarioari, eta **Areo**k ikusiko du, beharbada, *Kokorrdit*ak bizirik jarraituko duela ilobaren espiritu menderakaitzean.

ELIO B CUNAMPIO, zinemagilea eta Panamako artista indigena embera da. Bere bide profesionala jatorrizko herrien memoria kulturala kontserbatu eta berreskuratzera bideratu du, tresna bisualen, tresna korporal tradizionalaren eta zinematografiaren bidez.

GUIDO BILBAO, kazetaria, kronikaria eta dokumentalista da, Argentinan jaioa eta Panaman errotua duela 15 urtetik baino gehiagotik. Bere espezialitatea kazetaritza narratiboa da, giza eskubideetara, herri indigenetara eta Latinoamerikako ingurumen-arazoetara bideratuta.

SARIAK

Bartzelonako IndiFest Zinema Indigenako Jaialdian publikoaren saria eta epaimahaiak film luze onenari emandako saria.
London Latino Film Festival jaialdian ingurumen-film onenaren saria.
Kubako Isla Verdeko Zinema eta Ingurumeneko Nazioarteko Jaialdian sari berezia.

GONBIDATUA

MIKEL BERRAONDO, Atolónicako bazkidea. Nafarroako Gobernuaren aholkularia, giza eskubideen eta bizikidetzaren gaian. AECID agentziaren aholkularia, enpresen eta giza eskubideen gaian. 25 urtetik gora daramatza herri indigenekin lan egiten eta bidezko eginbideko prozesuak ezartzen giza eskubideetan. Egun, wayuu erakundeei lagun egiten die giza eskubideak gauzatzeko prozesuetan.

NAPAR ZINEKMO

AZAROAREN 20AN OSTIRALA

17:15ean / DOHAINIK

NAPAR
IKUSENTZUNEZKOEN EKOIZPEN NAFARRA
PRODUCCIÓN AUDIOVISUAL NAVARRA

BERTAKO ZINEMAGILEAK



KABIA

Iñigo Ávila García (Espainia, Ekuador, 18'. 2026)

Badra aljeriar immigrantea Iruñean bizi da, bakarrik eta gaixo dago, eta munduarekin konektatu nahi du. Bertako talde batekin bat egitean, **Eider** ezagutuko du eta adiskidetasun sakona eta eraldatzailea sortuko da bien artean, edozein muga urratzeko modukoa. Lagun egitea erresistentzia-modu bihurtzen duen komunitate bat irudikatzen du KABIAk.

IÑIGO ÁVILA GARCÍA, graduduna Soziologian, artea modu desberdinetara sortzen du. Literatura, zinema eta antzerkia lantzen ditu. Zenbait film labur eta dokumentaletan parte hartu du, eta sari batzuk jaso ditu. 2022an, DE JIMENA A LA TXANTREA kaleratu zuen, Jaendik auzo horretara etorri ziren pertsonen istorioak kontatzen dituen bizi-kontaketen liburua. Egun, LA MALETA DE MARKEL lana du ikusgai, haur-ipuin batean inspiratuta, eta gerratik ihes egiten duen errefuxiatu baten istorioa kontatzen du.

GONBIDATUA. **Iñigo Ávila García**, film laburraren zuzendaria.



ATLAS OCULTO

Anne-Laure Boyer (Espainia, Frantzia, 65'. 2026)

Espainian, herri asko presa hidraulikoen aintziretan murgilduta gelditu ziren gerraren ondoren, eta hori fenomeno masiboa izan zen, Europan beste inon gertatu ez zen moduan. ATLAS OCULTO ur-herri honen iruditeria esploratzen duen film bat da, mapa guztietatik eta memoria kolektibotik ezabatua. Vegamián, Burón, Riaño eta Nafarroako Esaren inguruko herrien istorioak kontatzen ditu.

ANNE-LAURE BOYER Parisen jaio eta Bordelen kokatu zen, eta argazkilaritza, bideoa, idazketa eta kartografia konbinatzen dituen diziplina anitzeko lana garatzen du. Bere lanak memoria kolektiboa, lurralde eraldatuak eta lekualdatutako komunitateak esploratzen ditu. 2012az geroztik, Espainian urpean gelditutako herrien historia ikertzen du, Madrilgo Casa de Velázquezen egiten ari den egonaldi artistikoari esker garatzen ari den lana. ATLAS OCULTO bere lehen film luze dokumentala da.

GONBIDATUA. **Anne-Laure Boyer**, film luzearen zuzendaria.



AZAROAREN 20AN OSTIRALA



19:30ean / 6,00€

GIZARTE-ESKUBIDEAK

TENDER LOVING CARE

Mike Leigh (Erresuma Batua, 107'. 2026)

SINOPSIA

Amy (**Kate O'Flynn**), gizarte-langilea haurrak babesteko zerbitzuan, **Rosie** (**Alice Bailey Johnson**) bere lagun alai eta onenarekin bizitzera itzuliko da, maitasun-harreman batek porrot egin eta gero. **Rosie** gizarte-laguntzaile aritzen da, eta egunero egin behar die aurre arreta ematen dien pertsonen hirari eta erresuminari. Era berean, **Amy**ren gurasoak (**Marion Bailey** eta **Paul Jesson**), adinekoak eta alabaren zoriontasunarekin kezkatuta, laster beren krisi bati aurre egin beharrean egongo dira.

MIKE LEIGH ingeles zinema- eta antzerki-zuzendaria, gidoigilea eta dramagilea da. RADA Arte Dramatikoko Errege Akademian ikasi zuen, eta prestakuntza hartzen jarraitu zuen Camberwell School of Art, Central School of Art and Design eta London School of Film Techniquen. Antzerki-zuzendariaren eta dramagilearen ibilbideari 1960ko hamarkadaren erdi aldera ekin zion, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan BBCrako filmetarako eta telebistarako antzezlanak errealizatzen hasi aurretik. **Leigh** ezaguna da bere entsegu-prozesu luzeengatik eta aktoreekin egiten dituen inprobisazio-teknikengatik, haien bidez bere filmetako pertsonaiak eta narratibak eraikitzen baititu. Bere xedea da errealitatea hautematea eta film «emozionalak, subjektiboak, intuitiboak, instintiboak eta sentiberak» aurkeztea.

SARIAK

Film onenaren Urrezko Maskorra, antzezpen protagonista onenaren Zilarrezko Maskorra (Kate O'Flynn, ex aequo), gidoi onenaren Epaimahaiaren Saria (Mike Leigh), Transforma Make & Mark saria eta SIGNIS saria, 2026ko Donostiako Nazioarteko Zinemaldian.

GONBIDATUA

BEGOÑA ELIZALDE-SAN MIGUEL irakaslea eta ikertzailea da Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Laneko Sailean. Lizentziaduna da Soziologian unibertsitate horretan, eta doktorea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatean. Esperientzia du lankidetzan eta nazioarteko harremanetan hainbat erakundetan, hala nola Nazio Batuetan eta Europako Batzordean. Zainketaren antolaketa sozialean, familia-politiketan, lana eta familia uztartzean, eta biztanleriaren zahartzean espezializatuta dago bere ikerketa, genero-ikuspegitik.